

Araban, han piztu den giroगतिक, euskaltzain bat izendatzeko premia agertu da, eta urrengo baterako kontuan eduki beharra agirian jartzea erabaki da.

Gipuzkoako Aministia Elkartearen eskariari buruz, bertan behera uztea erabaki da, gai hau gure arautegiaren helburuetakoa ez denezkero.

Badiola jauna Euskaltzaindiko lankideen arteko hartzea erabaki da.

d) BILINGUISMOA ETA BIKULTURALISMOA

Xabier Mendigurenen txostena Tarragonako Symposiumnari buruz. "Bilinguismoa eta Bikulturalismoa" izenburupean Tarragonan ospatu berrria den Symposiumnari buruzko txosten labur bat eman du. Gisa honetako kultur ekintzetan Euskaltzaindiaren esku hartzeak duen garrantzia azpimarkatu du lehendabizi; eta ondorean, bertan emandako hitzaldi bakoitzaren laburpen bat eskaini du. Triaduk, katalan irakasle-goaren prestakuntzaz eta Torresek katalan hizkuntzaren normalizazioaz esandakoei oso interesgarri eritzi zien gure arazoarekiko duten zerikusiaगतिक eta maila honetako lanetan ari diren katalanekin harremanetan jartzea oso onuragarritzat jo du.

e) EUSKAL ADITZEN HIZTEGI BATERAKO OHAR ZENBAIT

J. Haritschelhar jaunak irakurri du P. Lafitte jaunaren txosten interesgarri hau. Hizkuntza gehienak, hontaz zenbait exenplu eman nahiaz oraintsu Paris-eko Larrousse-k argitara berri duen I. eta J. P. Caput-en *Dictionnaire des verbes français* liburuak hontaz daroan ideia eta metodologiaren berri ematen du, tarteka adierazpenak ezarriz, euskal aditzen hiztegia nola behar duen azalduz. Gogoz entzun da lan jakingarri hau.

f) OLAGINTZAKO ITZAK

J. Garmendia Larrañagaren txostena. Eskulangintzekin batean bilduaz joan den txartelgetitik hautatu dituen hitzak. Guztiz hogetabost hitz, berreun baten artetik aukeratuak. Hitz bakoitza bere xehetasunekin ematen du, non eta nori jasoa den, eta hitz beraren esan nahia erabiltzen den kontestu barnean agertuaz. Gainera, batzuetan, Larramendi, Mogel edo beste norbaitek jaso zuenaren konparaketaz. Interesgarria euskal hiztegi teknikoaren hornigarri.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - VII - 30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko uztaillaren 30ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre eta L. Mitxelena euskaltzain jaunak; P. Altuna, I. Berriatua, X.

Gereño, J. Intxausti, X. Kintana, E. Knörr, J. L. Lizundia, J. Oregi, I. Sarasola, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak J. San Martín idazkari dela.

Irigaray, Larzabal, Lojendio, Satrustegi eta Zavala jaunek ezin etorri adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Ekaineko agiria onartu da.

a) HAR-EMANAK

Carlos Sistiaga Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialeko zuzendari jaunaren gutuna irakurri da, "Diccionario Normativo Enciclopédico del Euskera" delako lan bat burutzea finantzitzen duela. Lan hau lehenago G. Aresti zenaren esku utzi zutela, baina hau hil zenez gero, Ibon Sarasola euskaltzain laguntzailea izendatzen dutela. Lana zertan datzan eta burutzeko eramango diren bideei buruzko agerpen publiko bat egin nahi dutela datorren irailean eta Euskaltzaindia bera bertan presente izatea nahi dutela. Oso pozik eta ontzat hartua izan da. Eta, ahal baldin bada, iraileko azken ostiralez (24an) izatea eskatuko zaio Aurrezki Kutxari.

Bizkaiko Diputazioaren gutuna, lehen emana denen diru laguntzaz gainera 150.000,— pezeta gehitzea erabaki dutela aditzera emanez. Beraz 1976an, Bizkaiko Diputazioak 250.000,— pezeta eman dizkigu.

Nafarroako Foru Diputazioaren gutuna, aurtengo presupuestotik 200.000,— pezetako laguntza ematen digula aditzera emanez.

Hoiez gainera hiru udaletxeren gutunak irakurri dira, bere dirulaguntzak aditzera emanez: Elgoibarrek, 25.000,— pezeta; Legutianok, 5.000, eta Ordiziak beste 5.000.

Gasteizko "Excursionista Manuel Iradier" elkarteak, urtero Mairulegorretako lezan egiten duen euskal-jaian Euskaltzaindia saritzea erabaki du, euskal kulturaren alde egiten ari den lanagatik. Euskal-jai hau datorren igandean izango da, Abuztuaren lehen egunean. Idazkaria izendatzen da saria jasotzera joateko.

Bizkaiko Diputazioak gaur Gernikan izango duen bilkurara gomitatzen gaitu, errege Fernando katolikoak Bizkaiko Foruak zin egitearen bostehun urteburua dela eta. Telegrama bidali zaie, gure batzar eguna delako joanezina agertuaz eta gure atxikimendua azalduaz. "B. Garitaonandia" 1976 antzerki sariketarako epai-mahaia izandaten da, honako jaun honek osatuko dute: I. Beobide, I. Sarasola, Piarres Larzabal.

Abuztuko batzarra, Davant jaunaren sarrera hitzaldiz, Maulen izanen da, abuztuaren 22an (Igandez). Goizeko 10etan Meza, 11,15etan bilera Herriko-Etxean, eta ondorean bazkaria Hôstellerie du Château delako jatetxean.

EUSKERA, XX, (1975) zenbakia aurkeztuko da. Izan duen atzerapenaren arrazoiak adiarazi ondorean, aurrerantzean prueba zuzenketa orduan gehigarririk ontzat ez hartzea erabaki da. Inork bere lanari gehigarrikerantsi nahi badio, urrengo zenbakian atalen bat gehituaz izango da. Baita ere lanak zelan behar dutenaren normak zabaltzea erabaki da, inpri-

meria lana errazteko: Folioan makinaz idatziak, lerro bat hutsik utziaz. Norma hoiak Euskaltzaindiko guziet zabalduko zaizkie.

Jakin, Gero, eta A. Irigaray jaunarengandik hartu diren liburuen berri eman du bibliotekarioak.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Goiseko bilkuraren lehen partean, euskaltzain berria izendatzeko honako euskaltzain hauek elkartu dira: Villasante, Haritschelhar, Arrue, Davant, Diharce, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Larre, Lojendio, Mitxelena eta San Martin. Eta beste hauek bozetarako poderioak eman dituzte:

Satrustegik (bera Argentinan denez gero) Villasanteri; Larzabalek (etorri ezinez) Haritschelharri; eta Zavalak (lanpeturik dabilelako, etorri ezinez) San Martini.

Joan zen hilean presentatu zen aurkezpen bakarra Jean Hiriart-Urruty jauna izan zen. Bozetara jokatu da eta 15 botoak bere alde izan ditu. Beraz, Hiriart-Urruty jauna euskaltzain izendatua gelditzen da.

Jean Hiart-Urruty jauna Hazparne Abituene-n sortua da, 1927ko otsailaren 11an. Hazparnen, Baionan eta Uztaritzen egin zituen lehen ikastaroak batxileratoa artio, geroztik Baionako seminario handian bost urte eta Erroman hiru. Teologia eta Soziologiako lizenziaturak han irabazi ditu. Apez egin zen 1951an. Euskararen alde egin dituen lanetan, Eskualtzale Biltzarreko sariketak irabazi izan ditu; *Gazte* hilabetekarian, zuzendari zenbait urtez; *Herria*-ren zuzendari ordea hiru urtez; *Gure Herria* eta *Etxea* aldizkarietan idatzi du. Sailak: Hazparneko misionisten buruzagi izana, Seminario handiko irakasle ohia, eta orain Ipar Euskal Herri barneko pastoralaren zuzendaria.

Idazkariak aditzera eman du Aurrezki Kutxa Probintzialekoak egin dituzten eskaintzak, Euskaltzaindiari bere argitalpenetan laguntzeko. Horrez gainera, urteroko "Ciudad de Irún" literatura sariketetako epai-mahairako Euskaltzain bat ofizialki izendatzea nahi dute, lehendik mahaiko diren euskaltzainetatik edo berriren bat izendatuz. Lehendik daudenetatik hauek izendatzen dira: Ipuin sariketarako, A. Arrue eta Poesia sariketarako, J. San Martín.

Bigarren partean, bi bilkura egin dira, aditz sintetikoa aztertzekoa eta kazetaritzarena. Mitxelena jaunak eman du aditz Batzordearena, Euskaltzain eta batzordekoak egin duten bilera honetan, I. Berriatua jaunak sistematikoki gertatu duen aditz zerrindari zenbait oharpen egin zaizkiola, oraindik erabaki zehatzik hartu gabe. J. L. Lizundia jaunak eman du kazetaritza batzordearen bilkuraren berri. Bertan aztertu ziren zenbait puntu, bai gaurko euskal kazetaritzaren egoeraz, eta baita epe laburrera eta luzera gure kazetaritzaren egoera normalizatzeko baldintzetaz.

d) ANGIO HITZAREN ZENTZUAZ

San Martinen txostena, Elgetako zen Angiozar oinarri harturik eta Azkueren Hiztegiak dakarrena ANGIO-ren esan nahiaren araberez, Elgetako toki izenaren lekukotasuna eta hiribildutik izena sortu zezakean

usteaz honen lehen agiriaren berri ematen du, hitza hobeto ezagutzearen lagungarri.

e) OKA ETA ELGE FORMEN JATORRIAZ ZENBAIT GOGOETA

A. Irigoyen jaunaren txostena, *Oka* eta *Elge* formen jatorriaren nondi-kotasuna eta hoiien zenbait aldakuntza eta geografizko edaduraz. Eta batez ere Euskal Herriko Mendebalean ugariago agertzen dela aipatuaz.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - VIII - 22

DAVANT JAUNAREN EUSKALTZAIN SARRERA HITZALDIA ETA LARZABAL JAUNAREN IHARDESPENA

Maulen, 1976ko abuztuaren 22an. Hiriko elizan eman zen elkar mezaren ondotik, goizeko hamaika t'erdietan herriko etxean bildu dira, bertako hauzapez den Supervielle jauna buru delarik, L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buru ordezkoa, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre eta P. Larzabal euskaltzain jaunek; M. Jauregiberry andere ohorezko euskaltzaina; N. Alzola, J. L. Alvarez Enparantza, P. Andiazabal, I. Berriatua, P. Bordazaharre "Etxahun", P. Duny-Pétré, J. B. Etcheberry, M. Hegiaphal, R. Idiart, M. Itçaina, R. Kamblong, X. Kintana, E. Knörr, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, S. Onandia, M. Ugalde, P. Uriharren, J. Zaitegi, J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunek San Martín idazkari dela. Euskaltzaindikoez gainera hiriko agintari eta popu-lua.

Diharce, Hiriart-Urruty, Satrustegi eta Zavala jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Supervielle hauzapez jaunaren agurrezko hitzekin hasi da biltzar irekia. Villasante euskaltzainburu jaunak, biltzarkideak agurtuaz eta egungo batzarre honen programa adiarazi ondorean Zuberuako euskaltzain eta idazle zaharren oroitza ekarri du: Lhande, Eppherre, eta beste euskaltzainkideen arteko eta lehengo idazle ospetsu haietarik, Tartas, Oihenarte, d'Abbadie, Chaho eta abar.

Ohi den bezala, bi euskaltzainek lagundurik, Jean Louis Davant euskaltzain berria sartu da batzarreko saloian, eta ekin dio bere sarrera hitzaldiari. Zuberotar euskal idazleei buruzko gomuta orokorraren ondorean d'Abbadie eta Chaho zirenen bizitza eta laneri buruzko azterketari lotu zen. Erromantiko horiek gure herriko literaturan eta ideietan izan zuten arrakasta azpimarkatzen du, d'Abbadie olerki egunak antolatuz eta Chaho politikari bezala.

Ondorean P. Larzabal euskaltzain jaunaren ihardespena, hitzaldi laburrez J. L. Davant jaunaren bizitzaz eta ekintzaz: laborari inginiadore,